

2023-2024

PRESTAKUNTZA KATALOGOA



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERGANTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN

Jarraian, aniztasun kulturala eta kultura arteko bizikidetzak kudeatzeari dagokionez, tokiko erakundeetako teknikari eta kargudun politikoei eta erakunde sozialetako boluntario eta kontratupekoek bideratutako prestakuntza aurkeztuko dizuegu.

Biltzenek martxan daramatzan hamar urteotan erakunde eskatzaileek eta hartzaileek gehien eskatu dituzten eta eskatzen jarraitzen duten hamar prestakuntza-modulu dira. Horregatik, tokiko erakundeen eta erakunde sozialen prestakuntza-eskaintza iraunkorra, oinarritzua eta ezinbestekoa osatzen dute.

Prestakuntza-modulu guztiak etengabe eguneratzen ari dira.

- *Atzerritartasuna*
- *Aniztasun kulturalaren kudeaketa*
- *Kultura arteko gaitasunak*
- *Tratu-berdintasuna eta ez diskriminatzea*
- *Herritartasun berrirako gako kulturalak*
- *Kultura batzuen eta besteen hezkuntza-estiloak*
- *Familia-erreferentziarik ez duten adin txikiko eta gazte atzerritarrak*
- *Rolak, genero-harremanak eta aniztasun kulturala*
- *Kultura artekotasuna eta genero-indarkeria*
- *Zurrunurruak, generoa eta aniztasun kulturala*

Horietako edozein modulutan parte hartzeko eskaerak helbide honetan eska daitezke:

biltzen@biltzen.org.

Eskaintza honekin ase gabe geratutako bestelako prestakuntza-beharren bat izanez gero, bide beretik eta/edo telefonoz (94 400 1900) jar zaitezke harremanetan, behar horri erantzuna eman ote diezaiokegun baloratzeko.

Informazio orokorra

LEKUA ETA TALDEAK

Erakunde eskatzaileak kudeatuko du lokala, baita beharrezko baliabide teknikoak ere:

- ordenagailua, proiektorea eta pantaila, kasu guztietan.
- bozgorailuak eta Interneterako konexioa, hala behar denetan.

ESKURAGARRI DAGOEN EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Astelehenetik ostiralera (lanegunetan)
09:00etatik 18:00etara.

TALDEAREN NEURRIA

Gutxienez 15 pertsona.
Gehienez 25 pertsona.

TALDEAREN KONFIGURAZIOA ETA KUDEAKETA AKADEMIKOA (IZEN-EMATEAK, ASISTENTZIA, EBALUAZIOAK)

Eskatzaileak konfiguratuko du taldea eta dagozkion erregistroak kudeatuko ditu:

- izen-emate erregistroa
- asistentzia-erregistroa
- ebaluazio-galdetegiak

PROGRAMA EGOKITZEA

Biltzenek, erakunde eskatzailearekin batera, programa egokituko du erakundeak berak emandako informazioaren arabera:

- taldea: profil profesionalak, aurretiazko prestakuntza, esperientzia, kezkak, aurreikuspenak eta abar.
- eman beharreko moduluaren inguruko prestakuntza-behar zehatzak, zer puntutan sakondu, zabaldu, indarra jarri behar den detektatzeko.
- tokian tokiko egoera: egindako lana, aurrerapenak, arazoak, zailtasunak, egunerokotasuna eta abar.

METODOLOGIA

Azalpenezkoa eta parte-hartzailea:

- azalpen teorikoak.
- ikusizko aurkezpenetarako lagungarriak eta/edo ikus-entzunezko bestelako materialak.
- taldeko lanaren dinamikak.
- parte-hartzaileen esku-hartzea bideratzea.

IKASTAROAREN HIZKUNTZA

Gaztelaniaz.

Adierazten diren moduluak euskaraz ere badaude.

GENERO IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

Prestakuntzaren edukiak genero-

berdintasunaren printzipiora egokituko dira

- Baldintzei, beharrei eta emakume eta gizonek edukian duten parte-hartzeari arreta jartzea, beste desberdintasun-faktore batzuk kontuan izanda.
- Emakumeak eta gizonak estereotipatuta ez dauden roletan ikusaraztea. Roletan aldaketa sustatzea.
- Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea.

Dokumentazioan, materialetan eta ahozko azalpenetan, hizkera ez sexista erabiliko da, eta irudien eta ilustrazioen kasuan gauza bera.

Ahal den heinean, prestakuntzan zehar aurkeztuko den informazio estatistikoa, pertsoneri buruzkoa, sexuaren/generoaren arabera bereizita egongo da.

Halaber, prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen informazioa sexuaren/generoaren arabera bereizita egongo da.

Atzerritartasuna

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Eskakizunei eta prozedurei buruzko informazioa eskaintzen dituzten eta bideratzeak egiten dituzten herritarren arreta-zerbitzuetako profesionalak.
Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

4 ordu, saio bakarrean edo 2 orduko bi saiotan banatuta.

HELBURUA

Atzerritartasunaren arloan araudiaren ikuspegi orokorra izatea.

EDUKIAK

- Atzerritarren eskubideak.
- Araubide orokorra: irabazi-asmorik gabeko bizitoki-baimena, bizitoki- eta lan-baimena eta ikasteko egonaldi-baimena.
- Ezohiko egoerak: errotzea, arrazoi humanitarioak, nazioarteko babes-arrazoiak eta lankidetzaz agintariekin.
- Berritzeak/ aldaketak.
- Familia berrelkartzea.
- Komunitateko araubidea.
- Nazionalitatea.

Aniztasun kulturalaren kudeaketa

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Irekia profil profesionalari dagokionez.
Udaleko teknikariak eta kargudun politikoak.
Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

4 ordu, saio bakarrean.

HELBURUAK

- Aniztasun kulturala kudeatzeko ereduen bereizgarri diren elementuak ezagutaraztea.
- Esku-hartze profesionalak berezkoak dituen jarrerak eta ereduak modu kritikoan aztertzea.
- Orientabide praktikoak ezartzea maila ugaritan: esku-hartze printzipioak, zerbitzuen diseinua, esku-hartze programak eta prozesuak, banakako praktikorako orientabideak eta abar.

EDUKIAK

- Aniztasun kulturalaren kudeaketan gure ingurunean ohikoenak diren ereduak.
- Esku-hartze publikoaren arloko aukerak: autonomia maila, tokikoa, sektorekoa eta abar.
- Testuinguru eta praktika profesionalak berezkoak dituen jarrerak eta printzipioak.
- Orientabide praktikoak ezartzea.
- Esperientziak aztertzea.

Kultura arteko gaitasunak

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Irekia profil profesionalari dagokionez

Informazio, arreta eta esku-hartze prozesuetan inplikaturako udal-teknikariak

Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

4 ordu, saio bakarrean.

HELBURUA

Norberaren kulturakoak ez direnekin eta/edo kulturalki askotarikoak diren inguruneetan errespetuz eta modu eraginkorrean moldatzeko beharrezkoak diren gaitasunen ezagutza eskaintzea.

EDUKIAK

- Kultura arteko gaitasuna garatzeko beharra justifikatzea.
- Kontzeptu-mugaketa: kultura, gaitasuna, kultura arteko gaitasuna.
- Kultura arteko gaitasunaren dimentsioak.
 - Kultura arteko kontzientzia.
 - Gaitasun kognitiboa edo Kultura arteko ezagutza.
 - Konpetentzia emozionala.
 - Jokabide-konpetentzia eta konpetentzia metodologikoa.
 - Kultura arteko komunikazio-gaitasuna.

Tratu berdintasuna eta ez diskriminatzea

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Irekia profil profesionalari dagokionez.
Udaleko teknikariak eta kargudun politikoak.
Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

4 ordu, saio bakarrean.

HELBURUA

Europa, estatu eta autonomia mailan tratu-berdintasunerako eta ez diskriminatzeko esparru juridikoari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea, eta tokiko esku-hartze eremuan aplikatzea; jatorriagatik edo kulturagatik pertsonen irudi ez-diskriminatzailea eta estereotipatu gabea sustatzea ahalbidetuko duten kontzeptu eta araudi mailako elementuak eskuratzeko, betiere.

EDUKIAK

- Oinarrizko kontzeptualizazioa.
 - Ez diskriminatzea.
 - Tratu-berdintasuna.
 - Aniztasunaren kudeaketa
- Diskriminazio motak.
- Diskriminazio esparruak.
 - Subjektuak.
 - Babestutako kategoriak.
 - Materiak.
- Arrazismoa eta xenofobia: gorroto-delituak eta antzekoak.
- Tratu-berdintasuna.
- Ekintza positiboak.
- Araudi mailako esparrua.
 - Nazioarteko legedia.
 - Nazio mailako legedia.
- Diskriminazioaren intzidentzia .
- Esku-hartze eremuetako aplikagarritasuna -jarduera-jarraibideak-

Herritartasun berrirako gako kulturalak

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Tokiko administrazioaren egituraketa- eta informazio-prozesuetan inplikaturako udal-teknikariak: herritarren arreta-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako profesionalak. Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

4 ordu, saio bakarra kultur kolektibo bakoitzeko.

HELBURUAK

- Migratzaileen erreferentziak ezagutzea, jatorrian administratutako gisa, eta gertuko administrazioekin duten loturari dagokionez.
- Tokiko administrazioetik nabarmendu beharreko alderdiak identifikatzea
- Arreta-prozesuetan, bideratzeetan eta abarretan estrategiak txertatzeko jarraibideak ezartzea.

EDUKIAK

- Jatorrian.
 - Tokiko administrazioak: antolaketa, funtzionamendua, ohiko prozedurak eta abar.
- Helmugan.
 - Hasierako uneetan helmugako tokiko administrazioekiko dagoen pertzepzioa eta proiektzioak.
 - Migratuen kolektiboaren artean informazio- eta desinformazio-prozesuak eta -kanalak: okerreko ideiak, aurreikuspenak sortzea eta abar.
 - Tokiko administrazioaren esku-hartzearekin batera, migratuek beren beharretarako erantzuna eskatzeko erabiltzen dituzten prozesu informalak.

OHARRAK

Kolektibo kultural hauetako bakoitzerako bereizitako prestakuntza: Afrika Beltza, Latinoamerika, Txina, Ekialdeko Europa, Magreb, Sahara, Pakistan.

Kultura batzuen eta besteen hezkuntza estiloak

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Familiako esku-hartze sozioedukatiboko langileak, komunitate-dinamizaziokoak eta ludoteka eta gazteguneen moduko ekipamenduetakoak, gizarte-zerbitzuetako profesionalak. Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

5 ordu, saio bakarrean kolektibo bakoitzeko.

HELBURUAK

Balio eta jardunbide hezitzaileak ezagutzea kolektibo ugarietan Esku-hartze hezitzailean diren estrategiak identifikatzea.

EDUKIAK

- Familia-egitura eta genero-rolak.
 - Jatorrikoarekiko aldaketak eta inplikazio hezitzaileak.
 - Genero-rolen banaketa.
 - Joera hezitzaileak, sexuaren arabera.
- Bizi-zikloa seme-alaben hezkuntzan.
 - Gurasoen aurreikuspenak bideratzen dituzten heldutasunerako trantsizio-mugarriak.

- Hezkuntza-lehentasunak, -estiloak eta -balioak bizi-etapen arabera.
- Ingurunea jarraibide eta lehentasunen erreferentzia gisa.
 - Kolektiboen identitate-balio eta -elementuak.
 - Erreferentziako talde soziokulturalaren balioen eta harrerako gizartearen balioen arteko gatazka-elementuak: belaunaldi arteko gatazkak eta gatazka-bizipenak familia-ingurunean.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman-jarraibideak.
 - Jatorriko erreferentziako hezkuntza-eredu eta -esperientziak.
 - Kulturalki balioetsitako agintaritza, diziplina eta abarren erreferentzia eta ereduak.

OHARRAK

Kolektibo hauetako bakoitzerako bereizitako prestakuntza: Afrika Beltza, Latinoamerika, Txina, Ekialdeko Europa, Magreb, Sahara, Pakistan, Ijito Herria.

Familia erreferentziarik ez duten adin txikiko eta gazte atzerritarrak

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Esku-hartze sozioedukatifoko profesionalak, gizarte-zerbitzuetako profesionalak. Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

10 ordu, hiru saiotan: 2 orduko juridiko bat eta bi sozioedukatibo, bakoitza 4 ordukoa.

HELBURUAK

- Familia-erreferentziarik gabeko adin txikiko eta gazte atzerritarren migrazio-proiektuen funtsezko ezaugarriak ezagutzea.
- Eskuragarri dugun arreta-esparrua aztertzea.
- Lan sozioedukatiborako inplikazio praktikoak identifikatzea.

EDUKIAK

- Bidaiderik gabeko adin txikiko eta gazteen kasuan kontuan hartu beharreko esparru juridikoa eta duten egoeraren ondorio juridikoak administrazio-ibilbideetan, prestakuntzakoetan eta abarretan.
- Jatorrizko egoera sozioekonomikoa testuinguruan jartzea.
- Migrazio-proiektuaren analisia: profilak, aurreikuspenak, lehentasunak eta abar.
- Familia-egitura eta genero-rolak.
- Bizi-zikloa seme-alaben hezkuntzan.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman-jarraibideak eta talka-elementuak.
- Harrerako prozesuen, egituren eta abarren analisia, baita integrazioarako proposatutako espazio, ingurune eta harremanekin lotuta dakartzan inplikazioen analisia ere.
- Esku-hartzearen jarraipena: aurrez ikusitako ibilbideak eta gizarte-hezitzaileentzako inplikazioak.
- Esku-hartzerako jarraibideak.

Rolak, genero harremanak eta aniztasun kulturala

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Udal-teknikariak.

Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

8 ordu (mahai ingurua) edo 4 saio bakarra kultur kolektibo bakoitzeko.

HELBURUAK

- Jatorrizko gizarteen eta ijito-herriaren eraikuntza, arauak eta genero-harremanak aztertzea.
- Ijito-herrian rolen bilakaera eta helmugako genero-identitateen egokitzapen-prozesua ezagutzea.
- Orientabideak eta baliabideak eskaintzea.

EDUKIAK

- Jatorrian:
 - Gizonen eta emakumeen egoerari buruzko testuinguru soziala.
 - Maskulinitatearen eta feminitatearen eraketa: rolak eta generoari lotutako balioak.
 - Sexuen arteko harremanak, posizio soziala eta hierarkia.

- Gizonen eta emakumeen pertzepzioa enpleguaren, erlijioaren eta osasunaren egokitasunari buruz.
- berdintasunari buruzko lege esparrua eta gizon-emakumeek duten ezagutza maila.
- Helmugan:
 - Gizona edo emakumea izatearen inguruko talka kulturalak.
 - Genero-identitatea berregituratzea.
 - Oztopoak eta aukerak negoziazio pertsonal, familiar eta sozialeko prozesuan.
 - Berdintasunerako bidean aldaketak bultzatu eta laguntzeko jarraibideak.

OHARRAK

Mahai-ingurua gehienez lau ikuspegi kulturalekin: Afrika Beltza, Latinoamerika, Txina, Ekialdeko Europa, Magreb, Sahara, Pakistan, Ijito Herria.

Kolektibo bakoitzeko lanketa.

Kultura artekotasuna eta genero indarkeria

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Udal-teknikariak.

Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak.

ORDU IRAUPENA

8 edo 12 ordu, 4 orduko bi edo hiru saio.

HELBURUAK

- Immigrazioaren eta genero-indarkeriaren arteko loturak zalantzan jartzea eta estereotipo eta diskurtso erredukzionistei kontrapuntua ematea.
- Migratutako emakume eta emakume ijitoek biktimaren arretarako baliabideetan parte hartzeko dituzten baldintzatzaileak aztertzea.
- Kultura arteko ikuspegitik jardunbide egokiak identifikatzea.

EDUKIAK

- Testuinguru soziala.
 - Emakume migratuak Euskadin: jatorria, kausak eta migrazio-proiektuak.
 - Emakumeen migrazioa. Ondorioak jatorrian eta helmugan.
 - Emakume ijitoak Euskadin.

- Emakume migratuen eta ijitoen gizarteratzeko oztopoak.
- Emakume migratu eta ijitoen erakundeak, genero-indarkeriaren aurkako borrokarako tresna gisa.
- Testuinguru juridikoa.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrei aplikagarri zaien araudia eta dituzten eskubideak.
- Mahai-ingurua: Immigrazioa eta gutxiengo kulturalak.
 - Jatorrian: Genero-eraketa eta testuinguru soziala berdintasunarekin lotuta Genero-rolak eta kontrol sozialerako sistemak. Genero-indarkeriaren aurkako borrokaren pertzepzioa, kontzeptua eta esperientziak.
 - Helmugan: Errealitate politiko eta soziala; kontzeptu-talka, esperientzien talka, harremanen talka. Inplikazio pertsonalak, familiakoak eta sozialak. Talde barruko erresistentzia-mekanismoak eta tentsioak.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakume migratu eta ijitoek indarkeria-zirkulutik ateratzeko dituzten zailtasunak.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakume migratu eta ijitoei arreta emateko jarraibideak.

OHARRAK

Sarrera-saioa eta saio bat edo bi gehienez lau ikuspegiko mahai-inguruarekin: Afrika Beltza, Latinoamerika, Ekialdeko Europa, Magreb, Ijito Herria.

Zurrumurruak, generoa eta aniztasun kulturala

HARTZAILEEN PROFIL PUBLIKOA

Udal-teknikariak.

Kargudun politikoak.

Hirugarren sektoreko erakundeetako langileak, zurrumurruen aurkako ekimenetakoak barne.

ORDU IRAUPENA

3 ordu, saio bakarrean.

HELBURUAK

- Migratuen eta ijitoen inguruko zurrumurruak, estereotipoak eta aurreiritziak identifikatzea genero-ikuspegiarekin.
- Laneko eremuan, harremanetan, esku-hartzeetan eta parte-hartze sozialean duten eragina baloratzea.
- Ikuspegi (auto)kritikoa eta gutxiengoaren eskubideak eta bizikidetzaren modu aktiboan babestea sustatzeko gakoak proposatzea.

EDUKIAK

- Nazioarteko migrazioak testuinguruan jartzea.
- Ijito-herria testuinguruan jartzea.
- Zurrumurru, estereotipo eta aurreiritziak kontzeptu mailan lantzea eta bestetasuna eraikitzea.
- Estereotipo eta aurreiritziak arlo ugarian dituzten eraginak.
- Aldaketarako gomendioak.



 **biltzen**

Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERGANTASUN, JUSTITZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTITZIA Y POLITICAS SOCIALES



**MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA**

**PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN**